

Zenbat jende kabitzen da bihotz batean?



ANE ABLANEDO
LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Asko, ezta? Bai, jende asko maite dugu, eta pertsona bat baino gehiagorekin gaude afektuz lotuta, garbi dago. Maita dezakegun jende kopurua ez da mugagabea, hori ere egia da, maitasunak lotura galdegiten duelako, eta loturak denbora, baina tira; maitasuna jende askori zabal dakioken sentimendua dela, gu guzian esperientziak eta bizipenek ongi frogatutako egitatea da.

Gehienek, dena den, galdera maitasun erromantikoari buruzkoa zela pentsatu izanzen duzue. Hala ulertuta, goiko baieztapenetik salbuetsi egingo zenukete batzuek beharbada maitasun "mota" hori, bikotearen esparrua maitasunaren zabal-tasun horretatik kanpo utzi beharrekoa dela pentsatzen duzuelako. Baina egongo zarete, noski, ñabardurarik gabe baieztapena bere horretan utziko zenuketenik ere. Gabo idazleak poetikoki ongi adierazi zuen bezala, bihotzak putetxe batek baino gela gehiago dituela pentsatzen duzuelako, edo besterik gabe, hori aitortzeko behar den bezain zintzo edo ausart zaretelako.

Hala ere, erantzunetan baino gehiago, galdera horri (Aran Santamaria artistak bere erakusketa berriari jarritako izena dena, bide batez) hartzen diogun norabide bakarrek zentzuan jarri nahi nuke oraingoan azpimarra. Zergatik den beti

bikotearen maitasuna, *bihotza* hitza entzutean gogora etortzen zaigun lehena. Edo zergatik dugun hain barneratua, bikotekideak direla gure bihotza habitatu dezaketen pertsona garrantzitsuenak. Izan ere, bihotzarena maitasun gorena-ren metafora dela jakinik, hori baino ez baitu adierazten bien arteko lotura hori hain errazki egiteak.

Eta ez da ttipikeria. Afektuen hierarkia dagoela erakusten digu, eta sexualizatutako maitasuna dela hierarkia horretan beti postu gorena okupatzen duena, horrek dituen inplikazio guzietan. Maitasuna banatzeko eta jasotzeko ekitaldietan, beti ateratzen baitira gal-tzaile afektuak hartzen ahal dituen beste forma posibleak, lagunen artekoak, nagusiki, baina baita komunitateko partai-deen artekoa ere adibidez, edo zer esanik ez, geure buruarekikoa. Aski balioa ez dutelakoan, gure bizitza afektiboaren erdigunean ere beharko luketen harreman guzi horiek gutxietsi egiten dira, eta horregatik, gure denboraren, arretaren eta zaintzaren huskeria baizik ez diegu normalean eskaintzen.

Gure ongizate osoaren esperantza bikotearengan ezartzen dugu, eta ulergarria da zentzu honetan, maitasun erromantikoaren paradisu horretara iristea izatea jende asko eta askoren utopia na-

gusia, hori baino ez izatea aspirazio eta espektatiba orenen jomuga, erromantizatutako harreman horien esku uzten eta irudikatzen ditugulako gure ongizatearen ardura guziak: berezi sentiaraztea, arazoak konpondu eta asperdura kentzea, gure hutsuneak betetzea, beharrrak oro asetzea, gudan ez daukagun seguritatea, estimua eta egonkortasuna ematea, emozio intentsuak eskaintzea, eta nola ez, betiko izan dadila!

Zoriontasun betearen zina egin zaigun arren, eta egin zaigulako, frustrazioa, dezepzioa eta iruzurraren sentsazioa izaten da gehiegitan, paradisu iritsi izanaren zoria duenak topatuko duena, inork ezin duelako tamainako funtzioa arrakastaz bete.

Maitasun erromantikoaren mitoak suposatzen duen tranpa ikusarazteko, gure kide sexuafektiboekin erlazionatzeko ditugun moduak aldatzen saiatu baino lehenago beharko genuke bikoteak gure bizitza afektiboan duen zentralitatea ikusi, eta salatu. Afektuaren hierarkia eraitsiz, sare afektibo horizontalak ehundu ahal izan ditzagun gure maitasun handiaren matzarekin. Disidente sentimental izan nahi badugu, has gaitezen gure jende guzia ongi maitatzen eta zaintzen. Hor hasiko da afektuen iraultza. ●